



Bilbon, 2023ko uztailaren 17an

Ikasle adiskide hori:

Lehendabizi, Bilboko Ingeniaritza Eskolako Zuzendaria naizen aldetik, eskerrak eman nahi nizkizuke ikastegi hau zure unibertsitate-ikasketetarako aukeratzeko guran jarri duzun konfiantzagatik. Benetan espero dut zuri prestakuntza egokia ematen jakitea, zure etorkizun profesionala nahi duzun bezalakoa izan dadin.

Horregatik, eta Eskolako lehen egunak zuretzat errazagoak izan daitezen, harrera programa bat antolatu dugu. Horren arabera, Eskolaren aurkezpen orokor bat egingo da, gure ikastegiko aspektu garrantzitsuenen berri emateko.

Hori dela eta, jardunaldi honetara dei egiten dizut, **irailaren 7an**, beheko taulan agertzen den lekuan eta orduan. Egun horretan, garrantzitsua da matrikula egin duzunean aukeratu duzun taldearen zenbakia gogoratzea. Ingeleseko taldekoa bazara, 61. taldekoa, nahi duzun ekitaldia aukera dezakezu. Jardunaldira 15-20 minutu lehenago azaltzea gomendatzen dizut.

GRADUA	ORDUA	LOKALA	
Industria Teknologiaren Ing. Gradua Ingurumen Ing. Gradua Industria Antolakuntzaren Ing. Gradua Telekomunikazio Teknologiaren Ing. Gradua	10:00	EUSKARA	Areto nagusia M II Eraikina <i>Rafael Moreno "Pitxitxi", 2</i>
		GAZTELANIA	Areto nagusia I II Eraikina <i>Rafael Moreno "Pitxitxi", 3</i>
Ing. Zibileko Gradua Ing. Elektrikoko Gradua Ind. Elektronikaren eta Automatikaren Ing. Gradua Ing. Mekanikoko Gradua Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ing. Gradua	11:30	EUSKARA	Areto nagusia M II Eraikina <i>Rafael Moreno "Pitxitxi", 2</i>
		GAZTELANIA	Areto nagusia I II Eraikina <i>Rafael Moreno "Pitxitxi", 3</i>
Itsasketako Gradua Nautika eta Itsas Garraioko Gradua	10:00	GAZTELANIA	Gradu aretoa Portugalete Eraik. <i>M^a Díaz de Haro 68</i>
	11:30	EUSKARA	
Biomedical Engineering Gradua	12:00	HIRUELEDUNA	I-G Eraikineko Sarrera <i>Luis Briñas Kalea</i> (metroko igogailu parean dagoen sarrera)

Nik uste dut ekitaldia nahiko interesgarria dela, eta zure ahalegina merezi duela, azkarrago integratu ahal izan zaitezen gure Eskolako funtzionamenduan.

Horrez gain, QR kode honen bidez, matrikulatu berri zaren graduaren Irakaskuntza-Gida kontsultatu ahal izango duzu. Gida horretan, ikasketetan zehar ikusiko dituzun irakasgai guztiak kontsultatu ahal izango dituzu.



Besterik ez, har ezazu nire agurrik beroena.

Charles Pinto Cámara
BIEko Zuzendaria